

A.T.V.  
4563 JEL

# Eskual-herriaren alde

Eskual-herri-zaleen chedeak  
baitezpadako chehetasun batzuez  
laburzki argituak



BAIONA-KO  
« LA PRESSE » BAITHAN EGINA  
1933

DU MÊME AUTEUR :

**Eskual-herriaren alde**

ÉDITION FRANÇAISE

A.T.U.  
4563



**Eskual-herriaren alde**



M-12556  
R-6212

JEL

# Eskual-herriaren alde

Eskual-herri-zaleen chedeak  
baitezpadako chehetasun batzuez  
laburzki argituak



BAIONA-KO  
« LA PRESSE » BAIHAN EGINA  
1933



## AITZIN-SOLAS

---

*Liburuchka hunek eskualerrizaleen chedeak laburzki argitzen ditu : bertzerik ez.*

*Elhasturia eta hitz ederrak bazterrerat utzi ditugu.*

*Oraiko gaztek gauzak argi eta garbi nahi dituzte jakin, eta atsegin zaiote ikhustea nola politikako chehetasunek elgaratchikitzen duten, orratzetik hari.*

*Gure hizlari eta idazlek badaikitete gero gure irakaspenen berotzen eta edertzen, beren jeinu bereziari esker.*

*Eskualdun gazteak, lot denak lanari : gu gabe egin litekeen politika gure kontrahoa liteke.*

*Bai, gazteak, jo aitzina beldurrik gabe : bidea argi-argia duzue eta zueri dago Eskual-herriaren ethorkizun guzia.*

*JEL.*







## Eskualherrizaleen chedeak

---

*Jainkoa eta Lege zaharra!* Hitz hoitan bildurik daude Eskualerrizaleen chedeak.

1. Jainkoa lehen! horra gure lehiarik nagusia eta, gure arbasoek bezala, Eliza Amari galdeginen diozkagu atimari doazkon gainerateko argiak oro.

2. Lege zaharrak ez ditugu lehen ziren bezala berriz ezarri nahi; mendeak egin du bide eta orai oraiko gisa ibiltzeko chedetan gira : beraz gure aitonen legek zaukaten on guzia harturik eta egungo lege zuzeneri jarraikiz, ethorkizun hobe bati buruz abiadura zerbait hartu gogo dugu.

3. Eskualdunek ez dute onesten ahal Frantziako eskualdeen artean koropilatu duten lokharri hertsu eta galgarria; herri-aldeak berehago utziz elgarretarik, on gehiago dukete denek Gorputz batean aurkhintza batek gozo guziak bereganatzen dituelarik eta bertze alderdien kaltetan hazten, mingaichtoa erraiten diote : hala-hala Parisek ere Frantzia guzia jaten ari du eta galtzerat derama.

4. Eskuara frantsesa bezain ederra zaiku eta onhartarazi nahi ginuke bai eskoletan bai auzitegietan. Moroen eta Japonesen mintzairak onhartuak direlarik, zendako ez gurea? Ala hek baino gutiago gauzkate gu?

5. Egin ahalak eginen ditugu eskuara galtzen ari duten bazterren sendatzeko eta berriz eskualduntzeko. *Eskualtzaleen Biltzarrean* ditugun adichkidekin ariko gira chede horri buruz : kazeta, liburu, agerkari, sariketa, kantu, hitzaldi, deusik ez dugu gupidetsiko gure mintzaire garbia phiztu arte.

6. Bertzenaz ere, gure Eskualerriari orok dakigun gochoa emaiten dioten josteta eta ohidura on guzien alde agertuko gira : bereziki pilotaren alde, birlen, pastoralen, dantza-jauzien eta karta-jokoan alde. Jadanik lan gaitza egian du pilotaren onetan *Fédération française de pelote basque* delakoak, Jarraikiren gitzaio.

7. Guziek gogoan daukagu *etchea* dela egiazko eskualdun baten griña-biderik eta amodiorik gehiena, Jainkoaren ondotik, *etchea* lehen.

Etchearen onari jazartzen zaizkon lege eta lege-gaiak badira : hala nola ondoriotasunak purruskatzen dituen legea, edo ezkontza hautsi eta desohoratu nahi luketen bertze batzu. Erran gabea, lege zithal horien kontra ariko girela.

Aldiz etchearen alde ditazken urhats guziak onesten eta gotesten ditugu : haur-arau boz-emaitea, haur-arau lan-sarien goititzea, haur-ukan-sarien emendatzea,

norik bere eskolaren hautatzea, ikasle beharren laguntzea, gazteen zikhintzeko diren gauza guzien khentzea, edari galgarrien debekatzea.

8. Eskualdun legeen arabera, emaztek eta gizonek zuzen ber-berak zituzten primantzari buruz. Horrek erran nahi du bethi danik eskualdunek ezagutu dutela andreak ere gizonak bezanbat izaiten ahal direla, bai zentzuz, bai nagusigoz. Onesten dugu beraz anderek ere boz-emaitea. Funtsean andrea baino etche zain hoberik baditekea? Horra zergatik Andere eskualerrizaleen biltzar bat egiten dugun, bertzearen lagun eta sustagarri.

9. Aspaldiko mendetakoa da, eskualdun langilek, artzainek eta laborariek elgarren arteko batasun bereziak baitituzte, bata bertzearen laguntzeko. Sindikateri ez diotegu beltzuri eginen, bertze askok bezala. Alde jarriko gitzaizkote bethi.

10. Lurraren uztea, oraiko helde gaichtoa. Eskualerriak dauzkan mozkinak hobeki baliatzen balira, eta lur-lana mekanika berrieri esker ezitzen, bertzalde hirietako gocho hura mendietarat heda baladi, menturaz langile gehiago geldi litake herritik joan gabe. Ofiziale jakintsunekin hitzartuko gira, ea zer egin behar litaken.

11. Bizkitartean, Eskualerriak eremu ttipia duelakotz eta etchaldeak ahal bezain oso eduki nahi ginituzkelakotz, herritik joaileak bethi izanen dira. Heie-kilakoa ere atchiki gogo dugu .


12. Hori dela kausa, Gipuzkoa, Nafarroa, Alaba, eta Bizkaiako gure haur-ridekin adibide errechenak begiratu nahi baititugu, eta bertzalde ez baikira baitezpada gerla-gose, gure butuzagiak gizonki joka ditela arrotz-herrien alderat. Bakea zain dezagutela luzaz, azkarki eta ohorezki.

13 Eskualerrizaleak ez dira bakharrik lotuko beren lanari. Flandre, Bretania, Auvergne, Provence eta Alsaziako herrizale lagun batzuekin batean ariko dira eskuz-esku.


14. Halaber hemen gaindiko politika-egileri ez gitzaizkote baitezpada etsaituko, gure asmuak onesten badituzte segurik. Gure cheden alde agertuko diren gizonak lagunduko ere ditugu boz-egunetan.

15. Bainan denetarik berech gaude eta behar orduan guharen aitzinekoak atherako ditugu, eskualerrizale hutsak. Ezen alde eta moldez jokatu nahi gira JEL-en onetan, erran nahi baita : Jainkoaren Eta Lege zaharrendako.

**Gora Eskual-herria !**



# Eskual-herriaren alde



## I. — BERECHKUNDEA

Ez gira nehoren ganik berechi nahi.

1. Hemengo Eskual-herria Frantziari lotua dago *bizipide beharregeri* buruz. Gaskoinek eta Biarnesek crosten dauzkute gure lurretako eta lantegietako mozkinak ; ordainez guk ere gure auzo horiek laguntzen ditugu, ura, eletrika, langilea eta bertze asko gauza emaiten diozkategularik. Hain lokharri hertsien haustea, ororentzat kalte liteke.

2. Eskual-herria berez-bere nehoren laguntzarik gabe bizitzeko on balitz ere, *zuhurki* behar ginuke arizan eta ezagutu ezin gitezkeela erresuma handi baten ganik gure nahitarat aparta, 385 arrondizamendu dauzkalarik erresuma horrek, eta guk biga baizik ez. Jazar baginte, ulia bezala leher ginitzazkete.

3. Bainen mendiz bertzaldeko eskualdunen aneak gauden : odol berekoak gira, berdin eskuaraz mintzo, denak familiararen eta erlisionearen alde. Gutarteko elhe eta urhatsak zer-

gatik behar lituzkete gaitzetsi, erresumen arteko hoinbertze bilerosle, pilotari, kaseta-egile, lurgin, hots! denek atchikitzen kura egiten den mendean? Deputatu, fraile, jakintsun, saldute lokharri zerbait auzo-erresumetako beren lankidekin. Guk eskualdunek zergatik ez dugu bertze eskualdun batzuekilakoa atchiki behar? Gure mintzai, ohidura eta sinesteri doazkioten zuzenen begiratzeko hain itsusi dea elgar-adi dezagun, nor gure alderdian nausi gaudelarik, eta bakotchak ahal dugun bezala antolatzen girelarik, hek Espainiarekin, gu Frantziarekin?

4. Berech-zalea deitu behar dugu, Eskualdunak elgarretarik urundu nahiz ari den gaizkiegilea; bai eta eskualde ttipietako zuzenak ostikatzen dituen politikeroa, zeren jendea gogor-egiterat hehatszen baitu, eta gogor-egite hori behar baino urrunago heda baititake.





## II. — ERLISIONEA

Nehork ez dezake politikarik egin erlisionearen alde edo etsai agertu gabe. Gu alde gira.

1. Jainkoa gure politikaren asentu edo zimendutzat ezartzen dugu, ez baxharrik gure arbasoek hala egiten zutelakotz, baina arrazoinaz : 1° zeren, Jainkoa khenduz geroz, zuzenik ez baititake izan ez eta *eginbiderik*; 2° zeren, Jainkoa bazterrerat eman-eta, *indarra* du manatzen eta ez *adimenduak*; 3° zeren Jainkoaz bertze nehork ez baitezake jende bat zuzenki eta hutsegin gabe gaztiga edo sarista; 4° azkenean, zeren politika Jainkoaren meneko egon behar baita, ororen egilearen ganik daukagulakotz gure baithako jendekintasuna, bertze ekhartasun edo jaidura guziak bezala.

2. Eliza katolikoaren arartekoz heldu zaizku Jainkoaren argi, manu eta laguntzak. Haren irakaspeneri jarraiki nahi dugu. Egia handia erran dute : « Politikak gizonen artako zuzenak neurtzen ditu, baina zuzena konzientziaren egitekoa delakotz eta erlisionea konzientziaren moldatzailea, bichtan da erlisioneari doakola politikaren bide onean atchikitzea. »

3. Baina ez dugu *Biltzar katoliko bat* moldatu nahi. Aita Sainduak ez ditu onhartzen. Bertzenaz ere gure chede guziak onetsi gabe nor-nahi izan ditake egiazko katoliko suhar-

ra. Katoliko guziek ez lukete guk bezala zintikaterik, emazteen bozkatzerik, haur-arauko soldatarik ikhusi nahi. Ez litake zuzen gure biltzarra *katoliko* izendatzea, erlisionearen gain ezar bailitzazkete, gure gain hartzen ditugun chedeak.

4. Bai gure biltzarra erlisioneaz haratago hedatzen da ; eta hargatik edozoin eskualdun hartan sartzen ahal da, gure sineste guziak ez izanik ere, girichtinoek menderen-mendetan moldatu Eskual-herria zaindu eta goratu nahi duten ber.

5. Jaun aphezak ez dira lagunkide gisa sartuko gure biltzarretan. Heien aholku onak ez ditugu gaitzetsiko, baina berek hobe dute manatu edo obeditu gabe gure politikaz kanpo egoitea.





### III. — LEGE ZAHARRA

Ez gira nehoren ez deusen ganik berechi nahi : ez Frantziaren ganik, zeren harekin bizi behar baitugu ; ez mendiz-haindiko Eskualdunen ganik, zeren heien aneak baigira ; ez erlisionearen ganik gure politikaren zimendua delakotz ; ez-eta gure arbasoen ganik, gure odolaren ukhatzea bailitake.

1. Ez gira baitezpada zaharzale ; bainan uste dugu ohidura zaharrek zerbait onik baduketela. Ez segur zaharrak direlakotz, adinak berak deus-guti baitu ontzen ; iduri zaiku ordean ohidura hainitz onak zirelakotz direla zahartu. Gauza hobeago, guk atchikitzenago. Zuhur da lehengo gizonen adimenduak eskola gitza ; ez bide dira deusik ikhasi gabe iguzki petik itzali. Bertzalde gure jite guziak — arima eta gorphutz — hain egite handia du arbasoenarekin, non makhur izigarria bailitake, heien bizimoldetik soberachko bazter baginte. Alabainan bizimoldea jitearen araberakoa behar da.

2. Bizkitartean, zaharkeriak oro ez dira begiratzekoak. Alferkeriak ere sor-arazten ditu bere gisako usaia chaharrak. Usaia horiek *chahar eta tchar* dira, gizonaren gogoa lokhartzen dutelakotz, haren kalipua lolotzen, kasik hiltzen. Guk norapait higitu nahi dugu eta bizi. Halere etzaiku iduri itsurat ibili behar dugula, jo harat, jo hunat, oro puttin eta zalaparta. Hola ari dena ez doake urrun aitzina ; eta ez uste izan irakitzen ari duen erresumak egiazko bizi dohatsu bat deramala ; usteldurak ere biziaren eite badu, hilikiaren zathiak elgarretarik berechten eta deslotzen direlarik erasian. Nor berari doako

chuchen ikhustea nola utzi behar dituen nahasiak debalde, eta langile suharrekin abiatu.

3. Gauza berrieri ez diotegu beltzuri egiten : aitzina-menduaren alde gira, erran-nahi-baita jendeak aberasten, argitzen eta hobetzen ahal dituzketen urhatsen alde. Gure iduriko, Frantzia gibelegi dago ; eta Alsace-an, Bretanian, Flandretan, Provence-an eta Eskual-herrian ere hainitz frantses harrituak dagotzi, nola erresuma guzia antchutua eta murritzua den, eskualde gehienetako gozoak oro Parisek itsuski bereganaturik. Beha landare eta abereri. Jakintsunek erranen dautzute, izaite baten alderdi edo membroak bereziago, desberdinago, eta izaite hura aitzinatuago dela. Alderdiak izaite bati berdintzea (eskua zangoaren iduriko edo beharriaren iduriko egiten balitz bezala), eta erresuma baten eskualdeak berdintzea (Bretanian eta hemen lege berberak emanaz) gibel egitea da. Holako erresuma bat mingaichtoa duen gorputz baten pare da : mingaichtoak gorputzeko gozo guziak ebasten ditu eta bertze alderdien kaltetan hazten da : hala-hala Parisek ere Frantzia guzia iresten ari du eta galtzerat derama.

4. Zer nahi dugu bada ? Lege zaharrak lehen ziren bezala ezarri ? Ez ; mendeak egin du bide eta orai oraiko gisa ibiltzeko chedetan gira. Zer nahi dugu ? Bazter nahasten hasi, gero behar bezalako zerbait eraikiko dugulakoan ? Ez ; nahasmendua gerla bezain higuin garria da ; nehork ez du phiztu behar. Haatik norbaitek phizten badu, jo gudurat eta garhait etsaia. Gure chedea hau litake : 1793-raino Frantziak onetsi ditu Eskual-herriko lege bereziak : *Fors et Coutumes* erraiten zioten ; lege hoiien funtsa edo mamia nahi ginuke zimendutzat hartu eta geroztikako lege zuzenak lehengoeri eratchikirik, ethorkizun hobe bati abiatu. Gobernuak soka lepotik erabili nahi baigitu, guk ez dugu holakorik jasaiten ahal eta koropilo horren harrotzeko gure entseguak oro eginen ditugu.





#### IV. — GOBERNUA OTSO

Gauzak zoin bere tokian behar direla, nehork ez du ukatzen ; eta naturalezak edo Jainkoak eman lerrotik khen lezazken jendea zuzenkontra loake.

1. Arrotzen arabera, Eskualduna bakharkaria da, batasuneri ez sobera fida, jendeak bakharka, bederazka jujatu nahi eta ez multzoka. Ez omen zaiote batere eder gure jite hori. Bizkitartean hortan zuhurki gabilta. Gizon bakharrerri emanak zaizkote gogoa, nahia, norbait izaitea, zerurateko deia. Jendaiak, herriak, familiak ez dute bizitzerik, pairatzerik, bozkariatzerik, hetan diren jende bakharrerri esker baizen, eta salbamendua ere zoin gure alde egin behar dugu. Beraz, gure arima dela kausa, gutarik bakhotchak zuzenak baditu, nehork hunkitu behar ez dituenak.

2. Bainan gizcna jitez jendekina da. Ez dagoke munduan bakharririk. Hasteko, familia deitzen duten batasun baten haurra da. Aita, ama eta umea, horra naturalezak eskaintzen daukun *trinitate* ttipia, elgartasun lehena. Burhasoak, egile gisa, haurren buruzagi dira eta haurrak heien meneko. Batzuen eta bertzen zuzen-eginbideak nehork ezin khenduzkoak dira.

3 Familiak ez dira nehoiz berduraturik egon. Bethitik elgarri hurbildu dira eta hortik sortu dira auzoen arteko lege

bereziak, ohidura sainduak, hain arthoski zaintzen ditugun usaia ederrak.

*Parropiaren* izena grekotarren mintzaitetik heldu zaiku : erran nahi du : « etche moltchoa ». Frantsesez herria *commune* deitzen baitute, hitz horrek ere « familien batasuna » erran nahi du. Bertzalde zaharrek eskuaraz *auzo* izendatzen zuten eta horren gatik *auzo-apheza* deitzen dugu oraino herriko buruzagia. Beraz familiek egin dituzte herriak oro, familiak herrien egiazko nausiak dira; eta herriko kontseiluak zuzen-kontra ar litezke, familiak herriaren peko ezar balitzazte : lana eta tresnak langileaz gorago emaita litake, obra egileaz gorago, gizonen arteko antolamenduak naturaleza baino lehen edukitzea. Hori ez litake nahaskeria bat baizik.

4. Herriek aldiz ikusi dute, auzo izanez, bazituztela askotan intres ber-berak eta elgar-adituz egiten ahal zituztela batasun handi batzu, intres horien gerizatzeko. Hala dira *herri-aldeak* edo *eskualdeak* moldatu, bereziki mintzairea. odola, ohidurak, biziera, lan-moldeak, erlisione eta sinesteak oro berdinak zauzkatelarik. Hemen ere ohar othoi herria jitez eta zuzenez eskualdea baino lehen dela, eta ez hunen muthil. Nausia muthil jartzen denean, egiteko tcharra.

5. Batzutan herri-aldeak aski azkarrak aurkitu dira berez-bere erresuma gisa jartzeko. *Erresuma* izenak erran nahi du : lur-eremu batzuen batasuna ; *jendaia* edo « nazioea » erran ginezoke hobeki erresumako jende-aldeari ; *gubernua* aldiz, jendaia horren bidatzailer. Hots, hitz horien argitzeko, eman dezagun : erresuma itsas-untzia dela ; jendea, untziko jende-aldea ; *gubernua*, untziko aitzindaria.


Bainan frangotan herri-aldeak ez baitzitazken baxharrik bizi, edo garhaituak izanik, gogotik ala hala-beharrez, elgarretaratu dira, erresuma baten egiteko. Antolamenduzko batasuna, hori ere. Erran gabe doa batasun hortako *gubernua* behar dituela eskualdeen zuzenak gerizatu eta ez ostikatu.

6. Azkenean, lurreko erresuma guziek hitzarturik elgarren-arteko batasun handi bat osa balezate, oroz gaineko gobernu berezi horrek eginbide ber-berak lituzke erresumeri buruz, nola eresumak eskualderi buruz, eskualdeak herriari buruz eta herriak etcheri buruz.

7. Batasunen eginbideak hain garbiki argitaratzen ditugularik, ez ditugu heien zuzenak ukhatu nahi : manatze, debekatze bainan ez dugu nolana hiko ez eta mugagabeko zuzenik ezagutzen : eginbidearen bethetzeko zuzena, bada aski ; gaineratekoa soberakin eta jende-lehertze.

8. Egungo egunean Frantziako legeak ez dira hanbatekoak ez nor-bederarentzat, ez familiarentzat, ez herrialdentzat. Emeki-emeki zozialisteri emaiten diote esku. Ez dugu holarik jasaiten ahal eta frantses hainitzek bezala bertzelakatu nahi ditugu lege dohakabe horiek. Ez dugu errepublikaren kontra deusik erranen, erregek edo imperadorek ere ezin onetsizko legeak emaiten ahal baitituzte. Nahiago dugu behar gabeko auzi hori bazterrerat utzi, Eskualdunak bat egon diton, herriko ongiari gain-gainetik atzarriak. Bai deblauki aithor dugu, eskualerrizale gintzekela edo zoin gisetako gobernu baten aitzinean.





## V. — NOR-BEDERAREN ZUZENAK

Gobernua bidea da, eta ez hel-burua. Gobernua gizona-  
rentzat egina da, eta ez gizona gobernuarentzat. Zozialisten  
arabera, gizonak ez gira mekanika handi bat baizik eta nor  
bera mekanika hortako chiri edo erroda bat baizik, gobernuak  
bere burutarik har, utz, hauts edo alda dezakena.

Ez da egia. Gizon bakotchak bere jitea badu eta jite  
horrekilako dohain berezien baliaraztea, indar, gogo, nahi-  
kunde, — horra sortu denaz geroztikako haren eginbide garra-  
tza, Jainkoaren deiari jarraikitzen delarik.

### A. — IKASKUNTZA

1. Horra zertako ez dugun onhartzen orori eta orotan  
eskola bera eman dezaten. Ez gira eskola bakharraren, baina  
bai hainizkunaren alde. Erakusle bakhar egoiteko, norbai-  
tek behar luke egiaren jabe bakharra izan. Nehor izan dite-  
keia aski bekokiadunik edo erhorik, egia osoa eskuetan dau-  
kala erraiteko? Denek dakiguna, jakintsun handienak bethi  
auzitan ditugu, batak bertzearen erranak gezurtatzen dituela,  
bakotchak halere egia-izpi bat eratchikitzen diolarik orai-arti-  
noko jakitateari. Zertako batzueri atheak idek eta bertzeri  
hets?

2. Hitzemaiten daukuten eskola bakharra ezin dezakegu  
jasan: zeren jakin-beharren gauza ez baitu aiphatu nahi-ere,

gizona nundik heldu, norat johan eta zergatik bizi den. Eskola hortako jaun-anderek ez omen dakite fritsik galde hoieri ihardesteko. Jakin-gabea nola ditake eskol-emaile bakhar ?

3. Eskola-bakharra ez dugu nahi, zeren-eta esku-lana gutiesten baitu. Errienteen hautuak lurrari eta lantegieri hartu behar badauzkote haur erne guziak ikhas-etchetarat igortzeko, itchura guzien arabera esku-lanarentzat ez da tontorik baizik izanen. E-man dezagun errienteen saretik zonbait buru on eta argi eskapatuko direla, ez othe zaiote gaitzituko bertzeak baino gutiagotzat atchikiak izaitea ? Berzalde, zer bilhakatuko dira jakintsun horiek oro ? Nun dukete lana ? Minduko dira, hasarretuko : nahastaile mindegi hauta... Nork jakin zonbaitek ez othe dutenez hori bera bilhatzen ?

4. Ez dugu eskola bakharra nahi, herriko dirua iresten eta hondatzen duelakotz. Eskola hori, estakuru edo aitzakia gaitza dute zozialistek, moltsa guzien husteko eta ontasunen khentzeko. Zergak bethi goiti baderamatzate eta zergen bidez gobernua gauza guziez emeki-emeki jabetzen, jendea larruturik uzten duela, jakitate gehiago ere gabe.

Huna *Journal Officiel*-etik hartu ditugun chehetasun zonbait.

*1933-ko budjetan Eskolentzat ekharri dituzten chahupideak.*

Ministrearen langilentzat . . . . .	3.072.000	libera
Eskola handientzat . . . . .	212.300.000	»
Eskola artekoentzat . . . . .	425.000.000	»
Eskola ttipientzat . . . . .	2.350.000.000	»
Alsace-Lorraine-ko . . . . .	301.000.000	»
« Education physique » . . . . .	43.000.000	»
Langile-eskolentzat . . . . .	100.000.000	»

---

OROTARAT . . . . . 3.434.372.000 libera

Bertzalde : liburutentzat . . . . 506.800.000 »  
                  eskol-etchentzat. 1.443.000.000 »

Orotarat 5 miliar 343 miliun iraganik.

1880-an chahupide horiek 45 miliunetarat heldu ziren.  
Beraz oraikoak ordukoak baino.

$$\frac{5.343}{45} = 119\text{-etan handiago.}$$

Orai, 1880-eko budjeta osoa 1933-koarekin pareka bagineza, ikhus ginezake 17-etan baizik ez dela azken hau lehengoa baino handiago. Horiek guziek erakusten dute argi eta garbi zergen emendatzea, eskolako chahupidetarik heldu dela. Zer litake *Ecole unique* delakoarekin ?

5. Nahi dugu eskolemaiteko eskua. Ez bakharrrik hitzezko zuzena, bainan egiazko ahala. Gobernua ororen dirutik eskola urririk egiten ari deno, nola bizi ditazke libro direlako eskolak ? Ontsalaz, Gobernua ez litake eskol-emaile izan behar : jendeak utz bitza eskola judu edo eskola girichtinoen eraikitzerat, nahi duten bezala. Berak ikus dezala bakharrrik herriari kalte litaken irakaspenik emaiten denetz eskola hoitan eta hertsia aitetamak haurren eskolatzerat. Orai, lagundu nahi baditu, eskola guziak, girichtino ala pagano, lagun ditzala, haur arauka. Horra zer zaikun zuzentasuna.

## B. — FRAILEAK ETA SERORAK

Eskola egiteko eta gure gostukoaren hautatzeko eskua zergatik dugu galdatzen ? Nehoren sinesteri ez baitu gobernuak gogor egiten ahal, non ez duten kalte ekhartzen dela jenden adimenduari dela bertuteari. Zertako fraile eta serorak behar dituzte bethi hersturatu? Diote « boturik » ez duela legeak ezagutzen. Ez balu ezagutzen, ez lituzke

botu-egileak ere ezagutu behar, are gutiago hain itsuski zangopilatu. Utz bitzate beraz bere gisa, bazterrak ez dituzte ontuko baizik.

### C. — EMAZTEKIAK

Nor berak bere zuzenak ba, emaztekiak gizonkiak bezain ontsa.

Eskual-herriko lege zaharrek esku gehiago uzten ziozkaten andreari ezen-ez oraikoek.

Hamabi urthetan « gehien » ezagutua zen, muthikoa hamalau urthetan baizik ez zelarik gehientzen, erran nahi baita, ordu artio aitamen peko egonik, bere buruaren jabe jartzen.

Andrea *prima* izaiten ahal zen gizonkia *premu* zitakeien bezala : adina aski zen hortako.

Andrea auzitegietan lekuko ager zitakeien, Frantzian 1797-tik hunat baizik ez baitu legeak holakorik onhartu.

Aitoren semek eta aphezek ez bezala, andrek beren aitzi-neko bat igortzen ahal zuten herriko biltzar edo kapitoetarat eta botza beren izenean eman arazten.

Ziberon, emaztek kasu batzutan, haurride zaharrena ziren ber. juje kargua ere har zezaketen, XVIII garren menderraino iraur dūen ohidura baten arabera.

Gehiago dena, « senatus-consulte Velleien » delako legea orotan alha zelarik eta emazte ezkondua azpitik zaukalarik, bertze nehoren berme ez baitzitaken neholaz ager, Eskualdunek ez zuten emazteari holako deus trabarik eman nahi.

Horiek guziek erakusterat emaiten dute zoin gora zaukaten *etcheko-anderea* gure arbaso zintzoek. Guk ere ezagutzen dugu gizona bezanbat izaiten ahal dela, bai zentzuz, bai nausigoz. Onesten dugu anderek ere boz-emaitea eta boz-emaiteko zuzenari darraizkon bertze ondorioak ere onhartzen ditugu.

Mundu-bazter gehienetan lege hori iragana da. Tokitan zuzen osoa ukhan du andereak (edo nunbait han) : hala-nola Angleterran, Anglesen urrungo lurretan, Alemanian, Holandan, Etats-Unisetan, Suedan, bai eta Chinan ere. Tokitan aldiz erdizkalako zuzena : Belgikan, Espainian, Italian, Grezian, eta, eta...

Europar, Frantziaren, Suisaren eta Bulgariaren peko diren emazteak daude baxharrik boz-eman gabe...

Ahalgegarri da Frantziarentzat. Bainan hemen bertzetan bezala argituko du boz-emaiteko egunak anderentzat ere. Behar dira eginbide berri horren beha egon eta anartean haren ontsa bethetzen ikhasi. Horra zergatik Andere eskualerrizaleen Biltzar bat egiten dugun, bertzearen lagun eta sustagarri.

#### D. — FRANTSESA ETA ESKUARA

Nor bera bere jitezko deiaren arabera bizi dadien nahi dugu : fraile-serorek atchik ditzatela beren agintzak, emazteak lege-egile jar ditela gizonak bezala legearen peko direnaz geroz, nehoen gogoia gobernuak ez dezala bere molde bakhar hartan sartzerat hertsia bere eskola dohakabearen bidez. Bainan gizonaren gogoetak ez dira buluzirik agertzen ahal; hitzek ez dute baxharrik gure erran-nahia mugatzen, bainan jaunzten eta aphaizten. Mintzaireak emaiten diote antze berezi bat erabiltzen duteneri. Gogoeta gaudelarik, bethi mintzaire bati loturik bezala gira gure baithan : gure asmuak ez dira asmu hutsak, bai ordean eskuarazko, edo frantseseko, edo alemanezko asmuak. Egia bethi bera dago, bainan mintzaire baxhotchak bere gisako itchura, begitarte eta ibil-aira emaiten dio. Eskuaraz *maithatuko dut* erraiten dugularik, Anglesek *nahi dut maithatu*, alemanek *maithatzerat itzultzen naiz*, frantsesek *maithatzeiko dut*. Zertako behar ginituzke gure gogoetak beren jauntzi bereziez gabetu ? Haizu balinbagira gure gisa-



ko asmuen erabiltzeko, haizu behar gira berdin gure gisako mintzairean heien erraiteko.

Bertzenaz ere gure eskuara aski aberats eta ernea da gure bihotz-buruetako olde-guzien berri emaitako ; hiru mendez zer nahi liburu agertu da eskuaraz eta nahi-eta-ez gure mintzairea bethi zalhoinduz eta jorituz joan da.

1. Hortako nahi dugu eskolan eskuara eta frantsesa elgarrekin irakatsiak izan ditzen. Bretanian ere frantsesa eta bretona eskuz-esku doatzi. Alde onak ditu irakaspen bikoitz horrek : bereziki hitzen mamiraino sar-arazten du haur gaztea, zeren gauza bera bi gisetarat itzulia ikhusiz, gauza horren funtsari ohartzen baitzaio eta hitz hutsak alfertzat uzten baititu. Adimenduak ez duke azkar-bide hoberik.

2. Etsamina guzietan, lehen mailetik azkenerat, eskuarak behar luke bere chckoa. *Certificat d'études* delakoan bretonak eta flamanak berea badute jadanik. Noiz othe eskuararen aldi ? Bigarren saileko ikhas-etchetan Moroen eta Japonesen mintzaireak onhartuak dira. Zendako ez gurea ? Ala hek baino gutiago gauzkate gu ? Anartean susta ditzagun *Eskualtzaleen Biltzarreko* primak.

3. Aphezak othoitz ditzagun, prediku eta katichimetan eskuara erabil dezaten. Deithoragarri da han hemenka zoin aise erdaralat lerratzen diren.

4. Herri hainitzetako kontseilu bilkuretan eskuaraz churitzen dituzte egiteko guziak. Ez gal ohidura hori, eta ahalaz *procès-verbal* delako ageria frantsesez bezala eskuaraz ere egin-arazi behar litake, lehen egiten zuten bezala. Hola frantsesaren pareko ezar ginezake emeki-emeki gure mintzairea.


5. Eskuararen zain-biderik hoberenak dira : eskuaraz mintzatzea, eskuaraz kantatzea dela elizan, dela ostatuan, eskuarazko liburu, kazeta eta agerkarien irakurtzea.

6. Bereziki *Eskualdunak* gure eskerrak hartze ditu eta gure goresmen handienak ere, 46 urthe huntan deraman lan gaitzarentzat. Bethi eta mamitsuago badathorkigu, gogoen argi, bihotzen gochagarri, nahikundeen sustatzaile : nahiz haren politika ez den gurea bezain atrebitua, asko gauzetan harekin bat gaude, zeren gure arbasoen urhatseri, gure eskuarari eta herriko ongiari gain-gainetik atchikia baitzaio.

### E. — ESKUALDUN OHIDURAK

Bainan ez du baxharrik eskuarak egiten gure eskualdun-  
goa. Gure eskualdeari dakigun gochoa emaiten dioten josteta  
eta ohidurak atchiki nahi ditugu, eta emendatu : Etche-molde,  
muble-molde, eliza-besta, herriko besta, dantza chahar, pas-  
torala, pilota, birla, eta holako. Pilota bere egunik ederre-  
netan dugu; etche eta mublek beren aldi ona ukhan dute  
duela zonbait urthe : orai *kasu!* oihu egiteko ordua dugu,  
arrotz-modak berriz sartuko othe diren ? Pastoralak ere gal-  
tzeko zorian dira ; Chuberotar gaztek ez ahal dituzte hiltzerat  
utziko.





## VI. — ETCHEA

Familia da edo-zoin herriren erroa eta zimendua. Familia azkar, herria azkar ; familia ahul, herria ahul. Eskualdunek familiaren azkartzeko bi zurkaitz ezarri ziozkaten : etcheko ontasunen osorik atchikitzea, eta ezin-hautsizko ezkontza erlisioneak eginikako lokharri saindu batentzat zaukaten ezkontza eta ez zuten uste herioaz bertze deusek ezpartzu hori trenka zezakela. Aburu bereko gira. Ontasunak aldiz ordenuz oso atchikitzen ahal zituzten, legeak orai baino zuhurragoak izanez.

### A. — EZKONTZA-HAUSTEA

« Gizonak ez du Jainkoak juntatu duena berezi behar. » Horra zertako ez dugun onesten ahal ezkontzak hautsi nahi dituen legea. Bertzalde kalte handiak badakarzke ohidura zital horrek.

1°) *Etchetik kanporako ihes-bideak zabaltzen ditu* : legeak idekirik daukan atheari ohartuz geroz, senhar-emazteak mimberago jartzen dira eta atsegabeak nekhezago jasaiten : Ezkont-hauste baimen horrek deitzen eta kasik hertsatzen ditu ohantzetik joaiterat..

2°) *Lege horrek familia kordokatzen du* : egun batez esposek behar badute elgarretarik berechi, zendako dituzte haurrak ? Ez othe lituzkete pocholu, partitzeko tenorean ? Eta haurrak balinbadira, zer zorigaitza heientzat ! Alde batetik baitezpada lagundu behar luken batek bere umea uz-

ten : bertzeak atchikitzen, bainan ezin-jasanezko batasun izigarri baten orhoitzapen gisa; eta ezkontza berria gerthatzen balitz, zer begitartē luke leheneko umeak etche berri hortan ? Haurra da ororen buruan lege tzarraren pairatzale gaichoa !

1884-tik hunat (loi Naquet) 490.000 ezkontza erhautsi edo hobeki erraiteko zikindu ditu legeak. Zer gauza ikhara-garria !

Oraino hortan geldi balitz ! Bainan, huna gaitza hedatuz doalako frogā.

1886	2.900	ezkontza-hauste
1887	3.600	»
1888	4.700	»
1890	6.557	»
1905	10.013	»
1910	12.975	»
1913	15.450	»
1920	29.156	»
1921	32.557	»

1921-etik hunat, behar ere, chifre horiek jautsi dira, bainan bana bertze 20.000 ezkontza-hauste baditugu oraino urthekal...

Ezkontza-hausteko errechtasunak emaitako orde, behar liteke lehenik legea hertsitu, hauts-bideak nekhetu, eta azke-nean legea errotik egin.

## B. — ETCHONDOA

Gure zaharrek familiaren batasunaren atchikitzeke ezkontza sainduaz bertzalde etche-ondoaren osotasuna bazaukaten. Nahiz gauza hunek eskualdunen artean bere aldeko eta bere etsaiak dituen, ez gaude gure iritzia den bezala eman gabe.

1. Ondoriotasuneri doazkoten oraiko legeak etchen larutzeko mekanika batzu baizik ez dira. Jendeari khen, gober-

nuari oro eman, horra zozializten chedea. Zerga edo legarra izendaturik ere, ohointza bethi gaizki da eta jende zuzenak ohoineri oldartu behar zaizkote : lapurraren izenak ez du huntan muntarik.

2. Bainen ondore-legeak badu oraino zerga baino beltzagorik : ontasunen zathikatzea. Lehen premuari zagokion etchondoa eta primantzak salbatzen zuen etchea, Orai legeak ez du holakorik onesten, eta zer nahi jukutria behar da etchondoaren osorik begiratzeko. Aitamen thema, notarien esku-aire alderdikaria, haurride gazteen nahikunde ona, horiek oro behar, deusen egitekotz.

3. Aithor dezagun, gerlaz geroztik biziki ahuldu dela legearen kontrako Eskualdunen gudu luze bezain nekhoa. Zertako ? 1°) Haurride gaztek ez dute lehen bezalako begirunik premuarentzat eta haren onetan buluztea ez dute hain aise onhartzten ; 2°) aitamek ontasunen laurdena baizik ez dute beren eskuko, nahi dutenari emaiteko ; haur hainitz balinbada, laurden horrekin nekhez utziko zaio gehienari etchondo osoa ; 3°) haurrek *lurren* zathitzea galdegiten ahal dute eta bat bakharraren nahia aski da legez lurren purruchkatzeko ; 4°) burhasoak hiltzean, haur guziak ez balinbadira lege-adinerat helduak, ontasunak jujeen bidez zathikatu behar eta, auzitan itsuski urtzen dira : orduan nola begira etchondoa ? Nekhez.

4. Holako lege batek ez du jendetzea gutitzen ahal baizik. Haur bat baino gehiagoren izaitea, etchearen galtzea. *Hautes-Pyrénées*-tako konseilu jeneralak hortako galdegin du frangotan, ordenuaren egiteko esku gehiago utz dezoten jendeari : bertzenaz bazterrak gizonez hustuko direla.

5. Lege-egileak uste izan zuen aiphu dugun lege hunek jabeak emendatuko zituela bai eta etchalde ttipiak. Bainen hemen gaindi bertzela gerthatu da. Etchalde ttipiak suntsitu zaizkigu, lehengo ordenu moldearen eskasez.

Nola ditaken bi hitzez erranen dugu. Eman ditzagun lau auzo : Etchegaraya, Bidartea, Agerrea, eta Sagarpea, Etchegarayan, haur bat baizik ez. Bidartean, sei muthiko, lur guti, diru gutiago : lurren zathitzea irringarri liteke ; etchaldea salduko dute Etchegarayi eta dirua zathikatuko. Horra beraz Etchegaraya auzoaren gostuz zabaldua. Denborarekin bertzeak ere iretsiko ditu beharbada, Agerreko seme bati burua berotzen badio lurrak partitu behar direla, edo Sagarpeko jendek haur eskasez lanak utzi eta etchaldea saldu behar badute...

6. Tourraine delako aurkhintzan eta Frantziako bertze zonbait lekhotan lege hunek egin duela gauza onik, ez dugu ukhatzen. Hemen kalte izan dugu (Viollet : *Histoire du Droit Civil*, p. 937. Tessier : *La situation de la femme dans le Pays Basque*, p. 152). Horrek erran nahi du, Frantziako herri-alde guziak ez litezkela lege ber-beren pean atchiki behar : oro berdin izaita, amets ederra ; bainan orori erremedio bera eman aitzin, ez othe litake zuhur ikhustea oro eritasun berarekin direnetz ?

7. Ez dugu uste halere lehenagoko legea berriz har ditakela : premuak oro, bertzek ahoan kurutze, ez da chuchen. Legea aski zabala behar litake izan, legez etchondoaren salbatzeko, den gutieneko zimardikarik gabe. Hortako ordenu egilearen eskuko *laurden*-aren orde, ezar *erdia*, zonbat nahi haur izanen badu ere, eta *gauza*-ren orde, ezar *balioa*-ren zathitzea askiko dela.

### C. — FAMILIAREN ZUZENAK

1. Haurra da ezkontzako chede lehena. Haurra behar dugu gerizatu.

a) Legeak ez ditu aski garrakzi joiten ez haur galtzaleak, ez haur-hiltzaileak, eta jujek ez lituzkete hain aise kitorik utzi behar.

b) Arraza azkar edukitzekotz, alkoolari behar litzaioke gudua phiztu, bereziki muga-herrietan, — eta buhamiak ere

norapait urrundu, eritasun ahalgegarrienak hedatzen dituzte-lakotz gure bazterretan.

c) Haurra burhasoena da. Aithor dugu gure lege zaharrek ez zituztela haurrak aitameri mentzen, Erromako edo Frantziako legek bezain hertsiki : jitez aski menduak zitezken eta katichimak ez bide zuen legeen lauzkaren beharrik. Bethi danik aitetamak izan dira hemen gaindi haurren hazle, altchaztaile eta bidatzaile. Ezin onets dezakegu gobernuak bazterrerat utz ditzan, bera haurren jabe paratzeko. Gorago aipatu eskola bakharra hortako dugu gaitzesten.

d) Gobernuak nahi baditu jende chumeen haur hartze onekoak eskola handien egiterat lagundu, bozkariatuko gira ; bainan laguntza horren estakuruan, aitamak ez lituzke debekatu behar, haurrak nahi dituzten eskoletarat igortzetik : laguntza ba, soka lepotik ez. *Bourses* direlako horiek ontsa litezke, gerlako umechurchentzat bezala emaiten balire.

e) Gerlako umechurcheak, eskola girichtinoetan izanik ere, gobernuak diruak ukaiten dituzte. Bertze haurrek zertako ez othe ? Ala heien aitek astokeria gaitza egin duten, beren hezurrak gerlan ez utziz ? Orotan egin behar dugu galde hori.

f) Haur-ukhan-sariak orori emaiten dituzte : hortan chuchen doa behingotz legea. Eta ez othe lukete zuzentasun hori bertze gauzetarat ere hedatzen ahal ?

2. FAMILIA BATASUN GISA. — Familia egiazko batasun bat da eta naturalezak eginikako bakharra. Horra zertako batasun horrek bere zuzen bereziak dituen. Ondikotz egungo egunean zuzen horiek ukhatzen diozkate, bai politikeroek, bai bertze batzuek.

A. *Haur-arauko boz-emaitea.* — Familia da orotako batasunik azkarrena eta bertze ororen ithurburua. Behar luke beraz politika-biltzarretan bere burua agertu.

a) Ez gira hartan, Frantzia nork du erabiltzen? Donado eta haurrik gabeko jaun moltzo batek, Charles Gidek berak

aithortzen du. Aita familiakoak boz bat baizik ez du; bakharririk dagon gizon gazteak bertze hainbertze badu. Ez da ontsa. Zuzengabea oraino itsusiago da, aita hiltzen delarik : orduan familia nehor gabe egoiten da bere intresen begiratzeko. Eginbideak ba, horiek gelditzen dira, dela kargu, dela zerga, dela lan, dela atsegabe... Bainan alarguntsak nehundik ez ditzazke bere zuzenak eta haurrenak geriza herrian ez gobernuan.

b) Horra zertako familia arauko boz-emaitearen alde jartzen giren. Flandres-etan abiadura zerbait hartu dute gauza horri buruz eta atsegin ginuke hemen gaindi ere hartzen balute. Galdatzen dugu : 1°) aita familiakoak bere bozaz bertzalde, bere gain duken legezko haur bezanbat boza emaita ; 2°) aita urrun delarik, edo hila, edo gaztiguz debekatua, amak haren orde bozkatzea.

c) Ohart, oiction aipatu emaztekien boz-emaitea eta oraiko hau biga direla. Gure politikaren arabera, emazte ezkonduak bere boza ez du galtzen eta alargun familiatuak bere senhar zenarenari eratchikitzen dio.

B. *Haur arauko lan-saria.* — Familiatua den gizona ez da gehiago gizon soilaren deitzen ahal. Gizon soilarentzat lan-saria zuzena da, alde batetik bere beharruneri eta bertzetik nausiaren ahal eta irabazieri araberatua den ber. Bainan holako saria ez da zuzena, aita familiakoarentzat, bere haurren hazteko eta altchatzekoa ez badu hortik atheratzen ahal. Eskualherriko lantegi batzuetan haur araukako sari berezi bat emaiten diote langileari bere bethiko sariaz bertzalde. Ederki. Agian ohidura zuzen hori hedatuko da.

C. Hots, *etchearen alde* ditazken lege eta lege gai guztiak guretzan ditugu. Aitzitik etsai zaizkonak etsai zaizkigu, hala nola ezkontza gabeko giza-emazten batasunak fagoratzen dituen lege abiatua, ala zikintsu batzueri emaiten dioten barkamena.





## VII. — LANA

Lana, gizonaren legea eta ohorea. Lanetik atheratzen da nor bederaren, familiaren eta herriaren ontsa-izana.

### A. — LURRA

Lur-lana da Eskual-herriko aberastasunik edo bizipide-rik garbiena. Hari behar zaio lehen-lehenik behatu.

Ondikotz laboraria ihes badoako lurrari :

- Lur-lana nekhosegia dela.
- Langilea eskas.
- Ez aski irabazten.
- Irrisku sobera, eguraldiari egoki.
- Laborari-etchean gocho guti.

Horiek dituzte ihes joateko arrazoin edo aitzakiak. Erakutsi behar liokete *hiriak* ere bere alde tcharrak badituela : eritasun, itsuskeria, lan gabea...

Bertzalde lur-laneko gaitzek badituzte asko *sendagailu* :

1°) Gaztek laborantza hobeki ikhasi behar lukete, zombait urthe Garroko eskolan edo Purpan-eko ikhastegi handian iraganez : hala hala *Eskualdunak* emaiten dituen irakaspenak biziki onak lituzkete. Jakitateak lana errechten du eta ondorio hobeak emaiten diozka.

2°) Har lur-laneko tresna berri hetarik : mekanika hoiekin, langile gutiago aski da. Amikuzen bezala egin balezate bertze aurkhintzetan, ez gintezke hain gibel.

3°) Sindikatak emenda ditela, ez bakharrrik tresna, hazi eta onkailuen *erosteko*, bainan mozkin eta abereen *saltzeko* ere bai. Askok bakharka nahiago dute saltzen ari izan : zer gertatzen zaiote ? Irabazi nahiz, galtzen.

4°) Ezin-bertzen ukhaldetarik gerizatze (ur-atheratze, su, harri, etc.) molda *assurances* delako hetarik edo balia ja moldatuak direnez.

5°) Bas-herrietako bizitzea alegeratu eta gochotu behar da : eman eletrika bazter guzietan, pestak bethi ederki antola, garbitasun gehiago atchik, jan-edanak hobeki artha, jostetak susta : hola gure anaiek hertsikiago atchikiko diote lurrari.

6°) Errana dugu jadanik nola legeak zathikatzen dituen ondoriotasunak. Gaitz horrek huntan ere egiten du bere ausikia. Langileak bere burua ez du lehertu nahi, hain laster puskatuko den lur baten ontzeko. Khen dezagutela bada lege zital hori.

## B — LANTEGIA

Gure eskualde huntan lantegi handi guti da. Langile alde zonbait badira halere han-hemenka eta zozialistak aiher zaizkote... Orañ arte, Maulen eta Bukalen salbu, bertze nehun ez zaizkote nausi-langileak elgarri oldartu. Agian bakeak iraunen du, bainan gure ustez ahal bezain ontsa zurkaiztu behar litake.

Sindikata da hortako batasunik hoberena.

Ziberon artzainek aspaldi danik badituzte elgertasun bereziak eginik : *Artzañ-idiak* ; Garazin ere Zindikat ederra bada ; bertzetan « konfardia » chahar batzu badira (hala nola Semperekoa) lur lanaren alde edo kabalen alde. Bertze langilek eta industriako nausiek zertako ez elgar adi gisa berean ?

Ezen urthe gutirik barne langile-batasunak gobernuko gider gisa sartuko dira Frantzian. Nork daki ez direnetz jende guziak batasun hetaratzerat hertsatuak izanen ? Kasu guk, etsaieri lehendu nahi bagira eta C.G.T. delako Bilzarrak amesten duen Zindikat bakharrari ihes egin gogo badiogu.

### C. — ZINDIKATEN ETHORKIZUNA

1. Zindakatak bethi azkartzen eta gehiagotzen. Europako gobernuak khechu : alabainan erresuman bi indar jartzerat doatzi parez-par, biak kasik elgarren bethekoak : zindikaten indarra, eta gobernuarena. Gobernua ez balinbada zindikatez jabetzen, egina du harenak. Horra zertako Italian eta Alemanian gobernuak beren gomendio hartu dituzten langile batasunak oro. Belgikan bide berari darraizko.

2. Frantziak ere emeki-emeki atheka hortarat joko du eta C.G.T. delako biltzarra nahi litake etche berriko murru nau-sia izan. Langile guziak here ganat deitzen ditu, denak aska berean orhatu nahiz, zindikat bakhar bat baizik ez dadin izan. Beharrik hainitz gor eta sor egoiten zaizko. Girichtinoak bereziki libro gelditu nahi dira. Gu ere ba ; lantegiak eskolak bezala berech nahi ditugu.

Zonbaitek usteko dute beharbada gobernuaren behakoari ihes goazkiola. Ez da egia. Onhartzen dugu gobernuak bere so-egileak igor ditzan lantegian, eskolan bezala. Hortan Pio XI garrenaren irakaspenari jarraikitzen gira. Aita Sainduak ez du batere gaitzesten langile-batasunak gobernuaren peko eta lagun jartzea ; bainan ez du nahi Gobernuak langileari khien dezon bere batasunaren hautua, eta beharrezko laguntzez bertzerik eman dezan. (*Encycl. Quadragesimo anno*).

Gobernuak ez ditu nola nahika betheko bere chedeak. Bere bidean dituzken batasunak beharko ditu hartu eta bere mekanikan erroda berri gisa ohatu. Gure batasunak azkar balin

badira baliatuko zaiote. Hanbat gaichto, zozialisten muthil jarri behartzen bazaiku. Flamanek beren herri-aldeko langileak bildu dituzte eta heien *Chambre des Métiers* delakoa jadanik bada zerbait Gobernuaren aitzinean ere.

3. Hemen berdin egiteko chedea ginuke ; langilen intre-sak ez dira gutiestekoak eta ez da zuhur zozialisten gain utz dezaten heien begiratzeko artha. Oro gal litake.

Bainan herrian herriko gisa ar giten. Segurki gure zindikatek bertzen eite izanen dute, jitez eskualduna ez baita erdal-dunetarik hanbat zeharkatzen : gizona bethi gizon, nun nahikoa izan dadin. Bizkitartean gure ongaitz bereziak baditugu eta iduri zaiku ez direla ahantzi behar zindikatak egiterakoan ere.

Eskualdunak beren gisako batasunen moldatzeko gai dira : mendiz bertzaldean 40.437 langile eskualdun elgarretarat ez dituzteia bildu ? hemen gaindi kontrabandistek beren bandak ez othe dauzkate nehun bezain azkar, bizi eta joriak ? Eskualdunak badaki bertzekilakoaren egiten. Bakharrik ezin jasan dezake dena *paper* eta *izkiribu* ditaken batasun bat, are gutiago soka lepotik izaita. Beraz gure jiteari hobekienik doakon zerbaiti lothu behar gira.

Bertze liburuchka batean hurbilagodanik ikhertuko ditugu pundu horiek. Hemen achaletik baizik ez ditugu hunkitzen: aski erran dugu halere irakurlek gure gogoen berri jakiteko.

#### D. — LANGILEARENTZAT

Zozialistek ontasun guziak gobernuaren eskuetan ezarri nahi dituzte, jabe bat bakharra baizik aski litakelakoan. Guk aldiz jabegoa hedatu nahiz gabiltza.

1. Zuzen daukagu langilea ere zerbaiten jabe izan dadin

a) Dirua ezar dezala bazterrerat. — Zozialisten arabera, langile batek beretzat eta bere etchekoentzat behar duen baino diru gehiago irabazten badu, gainerateko hori herriari behar lioke itzuli. Guk ontsa atchemaiten dugu soberakin hortaz balia dadin lur pochi baten eta etche baten erosteko.

b) Ez dugu ere gaizki kausitzen langileak parte har dezan lantegiko kontseilu eta irabazietan. Frantsesez *actionnariat ouvrier* erraiten diote lan molde horri. Eskual-herrian entseatu dira eta liburu bat ere agertu da Bordalen, jakintsun batek eginik, entsegu horiek aiphatzen dituena (1). Jaun horrek frogatzen du elgarren-arteako antolamendueri esker langilek biziki ontsa bazerabiltela beren lana, bainan 1917-ko legeak makhurtu zituztela, bere zozialista kutsuarekin. « La Noria » eta « Entreprises maritimes basques » hartzen ditu erakuspentzat.

c) Sebera bilduak daude langileak lantegi handietan. Nor bere alde jarri behar litezke, *lana etchen eginez*, ala ofiziale gisa, ala nausi handien kondu. Eskual-herrian ez gaude gibelegi molde horri buruz, bereziki zapataintzan. Langilea bere buruaren jabeago jartzen da gisa hortan.

Burdin-ela eta lan-geiak aphaizten dituzten induztriek nahi-eta-ez bildu-bilduak egon behar dute. Bertzeak argal ditzatela eta jendeak berdura : ez da hola behar baino gauza gehiago eginen; langilea sanhoago dagoke (lantegi handiek nolako kalteak ez dituzte egin buru batzueri? Frantzian badira 150.000 erho eta 1.350.000 jende zainetarik joanak) ; egitekoak segurago ditazke, ezen etche handiek irrisku gaitzak dituzte eta gauza ez dute bethi hobea emaiten ez eta merkeago : beha Hazparneko eta Baionako oinekoeri! Azke-

---

(1). J. Combes. *L'actionnariat ouvrier en France avant et après la loi du 26 avril 1917. Applications en Pays Basque*. Bordeaux, 1931.

nean emaztea etchen egonen da, eta hola bere haurrak berak arthatuko ditu, naturalezak nahi duen bezala.

2. Langileak geroaz ere behar du orhoitu eta haren *ethorkizunari* doazkon obrak atchikitzeak dauzkagu : asurantzak, « caisses d'épargne », eta bertze. Haatik gobernua biziki ñapurra delakotz eta alegia deus ez cirua bere untzitik jauz-arazten ahal duelakotz, iduri zaiku asurantzak ez direla haren eskuetan ezarri behar. Legeak bertzenaz ere onhartzen ditu partikularrek eraiki asurantzak. Balia hor.





## VIII. — ESKUALDEEN ALDE

1. Eskualdeen alde jartzen gira : erresuma batean eskualde bakhotchari utz dezotela haren jiteak nahi duen bizi-molde berezia.

Zonbaitek eskualde guziak nahi lituzkete berdindu eta gehienaren peko atchiki : itsuak dira, ez dute ikhusten lege berak ez doazketela aurkhintza guzieri eta arraza guzieri.

Bertze zonbaitek eskualdeak elgarretarik berezi nahi lituzkete, baktotcha bere alde bizi dadila : desberdintasunik baizik ez dute hauick ikhusten : lausuak dira.

2. Bertze batzuek ez dituzte eskualdeak arrunt estekatu nahi ez eta arrunt berezi. Bainan ez dituzte denek lokharri berak atchiki gogo :

*Federalistek* dute haria lachoenik uzten : heien arabera, eskualdeak behar du bere buruaren jabe egon : *emplegatu* guziak bereak ditu, eta nahi duen *politika* egiten du, salbu puntu larri batzueri buruz, bereziki arrotzekilakoa egin behar delarik.

Bertze batzuek *emplegatuak* uzten diozkate eskualdeari, bainan *politika* erresumari dagokio oso-osea : Espainiako *Diputacione*-ak holako zerbait dira.

3. Bien artekoa da Rusiako moldea, hitzez segurik. Eskualde baktotchari uzten diote *emplegatu*en hautatzea herrian-herriko egiteko berezientzat ; bertzalde esku uzten diote mintzaiari, eskoleri eta ohidureri buruz ; bainan Rusiako

gobernuak ditu hautatzen eskualdeen-arteko lanetan behar diren emplegatuak eta harek du politika bidatzen.

4. Gure ustez hori da antolamendurik egokiena. Emplegatuak herrikoz-herriko hautatzea ez da aski ; mintzairia, ikhaskuntza, ohiduren zuzentzea beude eskualdearen gain. Beljikano batek diona : « Ce qui a fait l'appauvrissement spirituel de la France, ç'a été précisément cette centralisation culturelle qui a littéralement sucé le génie de chaque contrée française pour l'infuser à Paris où il a disparu. » Hots ! Parise gizon argituez bethe beharrez, Frantziak eskualde gehienak hustu dituela eta ororen buruan, Parisen murrizturik, izpiritu handi hoik deusetako ez direla izan. Utz jendea bere sort-herrian, han kausituko du bere gorphutzak, gogoak eta bihotzak nahi duten janharria.

Nahi-eta-ez politika pochi bat sartuko da eskualdeen zuzenetan : bai, eskualdek herrikoz-herriko beren gisako politika egin dezatela, bainan elgarren artekoa nola arrotzekilakoa baitezpada Pariseko gobernuari utzi behar.


Oichtiko Beljikanoak diona : Eskualderi esku gehichago utziz, bazter guzietan diren jeinu bereziak, ithotzeko orde, atherako eta loretuko dira ; eta erresuma batek mundu guzia aberastuko du, jendaien arteko ontasun eta jakitateak oro nasaiki baliaraziko dituen ber (1).



---

(1). R. Becker, *Pour un ordre nouveau*, pp. 45 et 46.





## IX — LIBROTASUNARI BURUZ

Parisekilako lokharrien lachatzea ez da gauza errecha izanen : Frantziatik berechtea bezain nekhe, Eskualdunak baxharrik egonez. Bainan lagunak baditugu.

### A. — LAGUNAK

1. Jadanik eskualde batzu lanari lothuak dira azkarki : Bretania, Flandresak, Alzazia, Oberña, Provence delakoa ere bai. Nork ez mirets zoin ederki gogor egiten duten Alzazianoek beren mintzaire eta ohiduren kontra ari diren gizon tzarrerri ? Bretanian eta Flandresetan lana zailagoa dute : mintzairea berriz phiztu behar, galtzen ari delakotz eta han hemenka galdua ere delakotz; bainan ez dira lotsa eta badute ja zerbait eginik. Provence eta Languedoc emekichago abiatuak dira, bainan gazteak ez daude lo ; eta heien aitek kobla ederri esker eta begitarte baitzioten, berek politika nahiago.

2. Bertzalde biziki gutiak dira Frantzian oraiko batasun hertsia eta ithogarriaz atsegin dutenak. Eskuin, Orleans-eko dukeak bere azken gutunean ez othe du federalista iduri, « Roi des Républiques françaises » izan nahi lukeela diolarik. Marin jaunak ez othe ditu eskualdeen nahikundeak gerizatu nahi ! Laurent jaunak — démocrate populaire — ez dea gure aburuko agertzen bere *Manuel politique* delakoan ? Justin

Godart (radical socialiste) jaunak ere bere zazpi ahalak egiten ditu herrialde ttipien alde... Eta ezkerrago joanez, aithor dezagun Alzaziako komunistek zer nahi badarasatela Paris-tarren aztapar luzeen sarkada ezin jasanez. Zozialistak salbu, denak koropiloa lachatu behar delako ustean daude.

3. Eliza ez da, nahi baduzu, baitezpada gure alde : bainan ez da gure kontra. Berak ez othe du misionetan ere tokian tokiko apheza ezartzen eta ohiko mintzairak ez othe ditu atchikitzen? Eta gure Jaun aphezpikuak ez daukuia bide ona erakutsi, eskuara eta biarnesa bere eskoletan sar-araziz ? Eta zonbat aphez eskualzale ez da bazterretan ?

4. Gobernuko ikhastegietan ere adichkideak baditugu. Bordalen, Tolosan, Baionan, Pauen, Morlaix-en, Parisen eskuararen aldeko irakusle jakintsunak badira. Bretanian eta Flandres-etan nola Alzazean herrietako errient hainitz aurki ditazke beren eskualdeari tintinka atchikiak daudenak.

Ez gira beraz bakharrik gure lanari lotzeko eta erran ditake bidea bertzek idekia daukutela. Jarraik giten. Orogen artean nausituko gira.

## B. — HEL-BIDEAK

1. Lehenik ez uste izan aise helduko girela gure chedertarat. Beharko da gogo, nahikunde, iraupen, diru, nekhe eta pairatze.

Askok ez gituzte konprenituko ere : jadanik nahas-mahas « fascistes, séparatistes, socialistes, hitlériens » eta hola deitu gituzte...

Zonbaitek ez gituzte konprenitu nahiko : hoiekin ez du halio hizkatzea ; ez adituarena egin eta aitzina.

2. Gure asmuen hedatzeko bide guziak on zaizkigu : ikhurrin edo bandera, ezagutgarri, karta, paper... horiek oro

begientzat ; musika, kantu, oihi... horra beharientzat ; gogoen ernatzeko aldiz hitzaldi, kazeta, liburu, solasketa, teatro... ; dantzek gorputz guzia inharrosiko dute eskualdun-goaren alde ; eta azken urthe hautako mekanika berrienak ere hortarako erabiliren ditugu : fono, radio, eta nik dakita...

3. Bainan horiek guziak lan-aitzineko urhatsak baizik ez dira. Politika dukegu gure giderrik hoberena. Orotan aitzindari paratu beharko dugu emeki-emeki. Herrietan konseilu sartu beharko, bakarka edo moltzoan. Halaber konseilari jeneral eta deputatu plazen hartzerat gaude... ordua datekenean. Ez dugu gutietsiko laborari, langile edo sal-erosle batasunetan gure kidekoen sar-araztea.

4. Norapait heldu bezain sarri, has giten eskualerrizale gisa ibiltzen. Ez dugu zeren beha egon Frantzia guzia gurekin izan dadin : ez, herri batean nausituz geroz, lan ederra egin ditake tokiko familien, eskolen eta ohiduren alde... Gure etsenpluek eginen dute bide.

5. Frantziako eskualde guzietan herrizaleak emendatzearekin, elgar aditu beharko dute eta denak batean oldartu : heien oldarrak ez dira baitezpada ukaldi batez eginen, bainan mailka bezala.

Lehenik errechtu behar litazke buregoetako lanak (*simplification administrative*), paper alferrak khenduz eta egitekoak departamenduan atchikiz, Pariserat joaiterat utzi gabe, han hainbertze diru eta denbora galdu gabe. Servat zenaren liburuak ederki ekhartzen du nola joka.

Gero Pariseko jauneri khen zuzen zombait eta konseilu jeneraleri eman (bereziki ikaskuntzari, mintzaiari, laguntzeri dohazkotenak)...

Holache deus berririk moldatu gabe, aldakuntza ttipi batzueri esker eskualdeen alde on handia egiten ahalko da.

Faint, illegible text at the top of the page, possibly a header or introductory paragraph.

A second block of faint, illegible text, appearing to be a paragraph or two of a letter or document.


A third block of faint, illegible text, continuing the document's content.

A fourth block of faint, illegible text, possibly a separate section or a continuation.

A fifth block of faint, illegible text, showing further details of the document.

A sixth block of faint, illegible text, likely a closing or a signature area.

A final block of faint, illegible text at the bottom of the page.



## AZKEN HITZA

Ordu tcharrak jo du...

Jadanik oro berdintzeko janhiza izigarri batek harturik, erlisione gabeko jaunskila batzu hasiak zaizku gure Eskual-herriari bere aspaldiko bizi garbia khendu beharrez...

Gazteak, ez othe duzue oihu bat entzuten ?


Dei bihotz-erdiragarriak dio :

« *Ez naiz oraino hil nahi!* »

Dei horri nork ez dio ihardetsiko ? Nor ez da chutituko Sort-herriaren alde, herriko sineste, mintzaire, etche eta ohidura sailduen alde ?

Chutitu nahi direnak oro jin ditela lanerat gurekin!

ESKUAL-HERRI-ZALEAK.






Eskualerrizaleen biltzarrean sartu nahi dutenek  
izkiria dezatela :

M. Pierre AMOÇAIN  
secrétaire du groupe eskualerriste d'USTARITZ.





# Aurkhi-bidea



<b>Aitzin-solas</b> .....	5
<b>ESKUALERRIZALEEN CHEDEAK</b> .....	7
<b>ESKUAL-HERRIAREN ALDE</b>	
Ch. I. — BERECHKUNDEA .....	9
Ch. II. — ERLISIONEA .....	11
Ch. III. — LEGE ZAHARRA .....	13
Ch. IV. — GOBERNUA OTSO .....	15
Ch. V. — NOR-BEDERAREN ZUZENAK .....	18
a) <i>Ikaskuntza</i> .....	18
b) <i>Froile eta Serorak</i> .....	20
c) <i>Emaztekiak</i> .....	21
d) <i>Frantsesa eta Eskuara</i> .....	22
e) <i>Eskualdun ohidurak</i> .....	24
Ch. VI. — ETCHEA .....	25
a) <i>Ezkontza-haustea</i> .....	25
b) <i>Etchondoak</i> .....	26
c) <i>Familiaren zuzenak</i> .....	28
Ch. VII. — LANA .....	31
a) <i>Larra</i> .....	31
b) <i>Lantegia</i> .....	32
c) <i>Zindikaten ethorkizuna</i> .....	33
d) <i>Langilearentzat</i> .....	34
Ch. VIII. — ESKUALDEEN ALDE .....	37
Ch. IX. — LIBROTASUNARI BURUZ .....	39
a) <i>Lagunak</i> .....	39
b) <i>Hel-bideak</i> .....	40
<b>Azken hitza</b> .....	43



